

## / Nabarmenezkoak

- > Inauteri umoretsuak eta seguruak, prebentzioari eta herritarren laguntzari esker (2. or.)
- > Laguntzen deialdi berria enpresetan berrikuntza sustatzeko eta eskaintza turistikoa indartzeko (4. or.)
- > Getxo, hiru filmaketa zinematografiko berriren agertokia (4. or.)



\*"Rigoletto" operako sarrerak agortuta (3. or.)

**Kontzertua.** Hilak 21 (ostirala), 21:00etan, Muxikebarrin, Olaia Inziartek bere lana aurkeztuko du, "Zerrautsa". 12€.

**Antzerkia.** Hilak 22 (larunbata), 20:00etan, Muxikebarrin, "Ni flores, ni funeral, ni cenizas ni tantán" (gaztelaniaz) La Dramática Errantekin. 12€.

**A-GENDA**

**Amaia Aguirre alkateak Carlos Garcia Gobernuaren Bizkaiko ordezkariordearen bisita jaso zuen asteazkenean, 2025/2027 jardueretarako jasoko duen diru-laguntza dela eta**

## Punta Begoñako galerien zaharberritzea 2031n amaituko da

Amaia Aguirre alkateak, Carlos Garcia Espainiako Gobernuak Bizkaian duen ordezkariordeak Punta Begoña galerietara asteazkenean egindako bisitan aurreratu zuenez, eraikinaren zaharberritzea 2031n amaituko da, aurreikusitako obra planaren arabera, eta hori dagoeneko ezagutu daiteke ekipamendura egindako bisitetan. Aste honetan bertan, itsaslabarreko geruzetan milioika urteko historia gordetzen duen Flysheko haitzuloa bezalako espazio enblematiko batean, aipatutako obra planaren erakusketa dago ikusgai, lanak hasi zirenetik amaitu arte, 2031ra arte alegia, aurreikusita dagoen bezala.

Bisitaren ibilbidea, Punta Begoña Fundazioko zuzendari María Peraitak gidatuta, aipatutako haitzuloan amaitu zen, eta bertan azaldu zitzaion Gobernuaren Bizkaiko ordezkariordeari aipatutako obra plana. 2021ean Punta Begoña Fundazioa eratu zenetik, erakunde guztiek sumatu dute proiektuaren garrantzia, eta proiektuaren aldeko apustua egin dute. Horrela, Espainiako Gobernuak Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak, %2 Kulturala programaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Udalak berak finantzatzen dituzte galeriak berreskuratzeko eta balioztatze lanak. Ondorioz, gaur egun Fundazioaren jardueraren %50 udalaz kanpoko inbertsioarekin ordaintzen da.

**770.000€ inguruko diru-laguntza** Horregatik, Gobernu Zentraren balorazioa eta laguntza,



2025-2027 faserako ia 770.000 euroekin, funtsezko bultzada da proiektuarentzat, Punta Begoñak bigarren deialdi batean hautatua izatea lortu duelako Estatu osotik etorritako ia mila proposamenen artean, eta horrek proiektuaren balioaz eta proiektuaren kudeaketaren estimazio handiaz hitz egiten du.

Finantzaketa horrekin, besteak beste, areto handiaren erabilera publikoa murrizketarik gabe ahalbidetuko duten obrak egingo dira, lurzoruaren eta sabaia-aren egitura konplexua finkatuz eta sendotuz, bai eta espazio

adierazgarri horretarako sarbidea ematen duen eskaileraren eta jatorrizko atariaren dekorazioen zaharberritze integral eta zientifikoa ere. Horrela, galdutako zirkulazio historikoa berreskuratuko da eta monumentuak zaharberritu ondoren izango duen etorkizuneko estetika ikusaraziko da.

Gobernuaren ordezkariordeari proiektuari emandako babes berria eskertu ondoren, Amaia Aguirre alkateak gogorarazi zuen 2025ak Punta Begoñako berreskurapen integralaren azken fasearen hasiera markatzen

duela. Datozen urteetan, urtetik urtera, gero eta gehiago izango da sorkuntzarako, erakusketarako eta prestakuntzarako gune ireki bat, aisialdirako eta gizarte-gozamenerako gune bat, bere kokapenagatik, historiagatik eta edertasunagatik aparteko ekipamendu zibikoa. "Horretarako, ezinbestekoa da 2025-2027 aldiran obra gauzatzeko ahalegina egitea, monumentuaren berreskurapen fisikoan, funtzionalizazioan eta, hiri ikuspegitik, ingurunea eta kostaldea edertzen laguntzeko. Hortik aurrera, eta ondare gunearen nukleo funtzionala berreskuratuta eta erabiltzeko gaitasun osoarekin, 2025-2030 aldiak eraikinaren erakusketa-, prestakuntza- eta hiri-erabilerarako aukerak sendotzeko eta zabaltzeko balioko du, egokitutako eta itxitako espazio berriak sartuta. Azkenik, 'Antzeppen-aretoa'-k eta 'Olgetarako galeria'-k beren aukera soziokulturalak erakusten ari direnean, beharrezkoa izango da monumentuaren hiri-irudia bukatzea, 2029-2031 aldiran gure itsasertzeko paisaia ikonoa berreskuratuko duena".

Bestalde, Gobernuaren Bizkaiko ordezkariorde Carlos Garcia adierazi zuenez, "Galeriak zaharberritzeak agerian uzten du beharrezkoa dela erakundeok lan-kidetzan aritzea herrientzat eta herritarrentzat onuragarriak diren ekimenak garatzeko. Getxoko higiezin enblematiko honetara bideratutako 769.000 euroko diru-laguntza 2019an birgaitzeko egindako lehen inbertsioari gehitu behar zaio. Apustu irmo horren bidez, Espainiako Gobernuak gure kultura-ondarearen balioa nabarmendu nahi du, bai eta ondare hori berreskuratu ere, herritarren gozamenerako gune gisa".





### MARTXOAK 13 OSTEGUNA

**Zinemabarri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Sofia Coppolaren "Black is belza" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

**Mahai-ingurua.** Punta Begoñako Galerietan, 19:00etan, "Emakumea eta mendia". Parte-hartzaileak: Ohiana Azkorbebeitia (korrikalaria eta Pyrenaica aldizkariaren lehen emakume zuzendaria), Luisa Alonso (goi mendiko lehen emakume gidaria, Kirol Teknikari tituluduna), Sonia Casas (goi mendiko gidaria) eta Isabel Garcia (alpinista, zortzimilakoak igotakoa). Antolatzailea: Etorbizuna Mendi Taldea.

### MARTXOAK 14 OSTIRALA

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Arizona" (euskaraz), Txalo Produzkoak-ekin. Sarrerak agortuta.

**Kontularien kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean, ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen topagunea (gaztelaniaz).

**Zine kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Aki Kaurismäkiren "Fallen leaves" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

**M8ko jarduerak.** Gurariko liburutegi feministaren aurkezpena. 18:00etan, Gurari Emakumeen Etxean, Josune Muñozek dinamizatuta. Antolatzailea: Udala.

### MARTXOAK 15 LARUNBATA

**Kontzertua.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Bilbao Barrok taldearen emanaldia. 5€

**Opera.** 19:30ean, Muxikebarrin, "Rigoletto", Leonor Gago & Moldavia Operarekin. Sarrerak agortuta.

### MARTXOAK 16 IGANDEA

**Haurrentzako ikuskizun musikalak.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Pinocho" (gaztelaniaz), Mar Rojo Teatrorrekin. 4 urtetik aurrera. 6€.

**Zinematik.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Salvajes" (gaztelaniaz). 7 urtetik aurrera, 2,50€.

### MARTXOAK 17 ASTELEHENA

**Hitzaldia.** 18:15ean, Romo Kultur Etxean, "¿Es posible ayudas a hijos, hijas, nietos, nietas... a tener una relación sana con pantallas, redes sociales, videojuegos...?". Hizlaria: Estibaliz Ansotegi (psikologoa). Antolatzailea: Romo-Areeta-Gizatiar emakumeen elkarte soziokulturala.

### MARTXOAK 19 ASTEAZKENA

**Dokumental zikloa.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, Teresa Lavinarren "Las barreras, relato de dos barrios". Sarrera gonbidapenarekin.

**Liburu aurkezpena.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean, (Villamonte),

"Trinchera humana"ren aurkezpena (gaztelaniaz) José Ángel Landeta egilearen eskutik.

**Entzunaldia.** 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, akordeoi ikasleen entzunaldia.

**M8ko jarduerak. Hitzaldia.** "El feminismo, la memoria histórica y el cambio social", 19:00etan, Gurari Emakumeen Etxean. Hizlaria: Miren Llona. Antolatzailea: Udala.

### MARTXOAK 20 OSTEGUNA

**Ipuinaren ordua.** 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Bego Alabazaren "Sagu txiki, sagu maite" (euskaraz). 2-6 urte.

**Zinemabarri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Kaouther Ben Haniaren "El hombre que vendió su piel" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

**Liburu aurkezpena.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Miñan" (euskaraz), Amets Arzalluz eta Ibrahim Balde egileen eskutik.

**Literatura solasaldia.** 19:45ean, Algortako Kasinoan, Edurne Portelaren "Maddi y las fronteras" liburuari buruz (gaztelaniaz).

**Hitzaldia.** 19:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Actualización de asuntos jurídicos" (gaztelaniaz). Hizlaria: Olga Macia. Antolatzailea: Mugabarik-Garapen personal eta komunitariorako elkarte.

**Hitzaldia.** 18:00etan, Romoko San José Obrero parrokian, "La ruta hacia el personaje literario moderno". Hizlaria: Luisa Etxenike (idazlea). Antolatzailea: Romo-Areeta-Gizatiar emakumeen elkarte soziokulturala.

### MARTXOAK 21 OSTIRALA

**Kontzertua.** 21:00etan, Muxikebarrin, Olaia Inziartek "Zerrautsa" lana aurkeztuko du. 12€.

**Zine kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Jonathan Glazerren "La zona de interés" (gaztelaniaz). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

### MARTXOAK 22 LARUNBATA

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Ni flores, ni funeral, ni cenizas ni tantán" (gaztelaniaz) La Dramática Errante konpainiarekin. Zentzumen-degaitasuna duen jendearentzako irisgarria (entzumen eta ikusmena). 12€. Izena ematea nahitaezkoa da [programazioa@getxo.eus](mailto:programazioa@getxo.eus) helbide elektronikoan (martxoaren 18ra arte).

**Kontzertua.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Gariokit Mendizabal (txistu) eta Josu Okiñena (piano). 5€.

### MARTXOAK 23 IGANDEA

**Umeentzako antzerkia.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Temus" (gaztelaniaz) El que ma queda Teatrorrekin. 5 urtetik aurrera. 6€.

**Zinematik.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Dixie eta matxinada zombia" (euskaraz). 7 urtetik aurrera, 2,50€.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Barriola, San Adrian azeria" (euskaraz). Adin guztiak. 2,50€.

- Bidaia ajentza familien bila dabil hiru edo lau egunez eskola bidaia egingo duten 2 edo 3 ikasleri ostaturia emateko. Zure ohiko jarduerak egin ahal izango dituzu, diru apur bat irabazten duzun bitartean. Tel.: 609 90 58 26.

# Inauteri umoretsuak eta seguruak, prebentzioari eta herritarren laguntzari esker

Udalak 2025eko Inauterien gaineko balantze ona egin du, jai-giroan eta larritasun bereziko istilurik gabe igaro baitira. Algortan hiru egunez izan dira jarduerak eta prebentzio neurriei eta segurtasun dispositibo bereziari esker, iragan asteburua, oro har, lasaia eta nahasmendu nabarmenik gabea izan zen.



**Jarduketak Algortan**  
Laguntza-lanei dagokienez, mozkortuta zeuden hiru adingabe aurkitu zituzten, eta abisua eman zieten haien familiei. Haien ardura hartu zuten familiek. Gainera, bi pertsona artatu zituzten: bat erori zelako (Urdulizko Ospitalera eraman zuten) eta bestea takikardiagatik (anbulatoriora eraman zuten). Segurtasuneko esku-haritzeen artean, nabarmentze-

koa da 430 litro alkohol konfiskatu zizkietela adingabeei (argazkia) eta 9 arma zuri eta 7 droga dosi ere konfiskatu ziren (argazkia). Lokal bat adingabeei alkohola saltzeagatik zigortu zuten eta beste 2 ordutegitik kanpo saltzeagatik. Halaber, hiru liskar eta/edo borroka saialditan esku hartu zen, inor erietxera

eraman behar izan gabe; eta bi atxiloketa egin ziren: bat genero indarkeriagatik eta bestea familia barruko indarkeriagatik.

Horrez gain, adingabeentzako alkohola erosteagatik pertsona bat identifikatu zuten; beste bi zigortuak izan ziren identifikatzeari uko egiteagatik; eta Barik txartel bat, erabilera desegokiagatik, eta soinu-ekipo bat konfiskatu zituzten.

"Udaletik herritarren laguntza eskertu nahi dugu, baita Udaltzaingoaren, Ertzaintzaren eta larrialdi taldeen aholagina ere, bertaratutako pertsona guztien segurtasuna eta ongizatea bermatu zutelako", adierazi du Keltse Eiguren herritarren segurtasunerako zinegotziak.



**Bisita Paulina Ortega Negreteri bere 100 urtebetetzeagatik**  
Amaia Aguirre alkateak Paulina Ortega Negrete auzokidea bisitatu zuen asteartean, martxoak 11, gaur egun bizi den Beato Domingo Iturrate egoitzan, bere 100 urtebetetzeagatik. Burgosen jaioa, emakumeak seme bat, alaba bat eta bi biloba ditu, eta ohi bezala, alkateak eman zizkion *Aixerrota* oroigarria eta lore sorta bat.

## LABURRAK

**\*\*"Oporrak Bakean" ekimenerako izenematearen amaiera.** Larunbatean, martxoak 15, amaituko da udan etxean saharar umeak hartzean datzan *Oporrak Bakean* ekimen solidarioan parte hartzeko izenematea. Informazioa eskuratzeko eta izenematea egiteko: 958 751 359/ [atfalgetxo@gmail.com](mailto:atfalgetxo@gmail.com)

**\*\*"Eman minutu 1 BAKEaren alde" lehiaketaren sariak.** Martxoaren 21ean, ostiralean, 19:00etan, Udalen laguntzarekin UN Etxeak antolatutako *Eman minutu 1 BAKEaren alde* lehiaketaren sari emate ekitaldia izango da Muxikebarrin. Sarrera doakoa izango da baina inskripzioa egitea gomendatzen da: <https://forms.gle/4oWbS4wibJ9Se1Ad7>



Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia egiazko-tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

**STAFF**  
Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: [getxokoudalaprensa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprensa@getxo.eus) Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87



**Mujeres con Voz eta eCivis sarituta**  
Getxoko Mujeres con Voz eta eCivis elkarteek Foru Aldundiak eta BBK ematen dituzten Bizkaiko emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko Zirgari sariak jaso zituzten pasa den ostiralean, martxoak 7, Bilboko BBK aretoan ospatutako ekitaldian. Hargarren edizioak aurtengo sarituak omentzeko balio ez ezik, berdintasunarekiko izandako konpromisoaren balioa azpimarratu zuen baita sarien garrantzia ere. Mujeres con Voz elkarteak Berdintasunaren aldeko Erakundearen Saria jaso zuen. Berdintasunaren aldeko Proiektuaren saria eCivis elkartearen *Musika eta Zure Begirada* ekimenerako izan zen, eta horiekin batera, ohorezko saria eskuratu zuen Carmen Mijangos zientzialariak.





## Agortu dira Giuseppe Verdiren “Rigoletto” operarako sarrerak

Larunbat honetan, martxoak 15, 19:30ean, *Rigoletto* opera antzez-tuko da Muxikebarrin, Giuseppe Verdiren musikarekin. Antzezla-na ikusteko sarrera guztiak agortu dira. Oraingoan, Moldaviako Opera Nazionalaren ekoizpena da, munduko hainbat herrialde-tako 20 bakarlarari eta artista gon-

bidatu baino gehiagorekin.

Opera hau Victor Hugoren *Le Roi s'amuse* antzezlanean oinarrituta dago. Adituen ustez, Verdiren lehen maisulanetako bat da *Rigoletto*, eta hainbat aria ospetsu ditu, hala nola *Bella figlia dell'amore* edo *La donna mobile*, eta amaie-

ra tragikoa duen melodrama bat da, pikardia, errugabetasuna, maitasuna, pasioa, gorrotoa eta mendekua uztartzen dituena. Moldaviako Opera Nazionala Europako konpainia onenetako bat da, eta urtean berrehun opera ekoizpen baino gehiago eta balleteko beste hainbeste egin ditu.

## “Arizona”, mugei, migrazioari eta giza ergelkeriari buruzko hausnarketa


Aitziber Garmendia aktorea eta Jon Plazaola lankidea Muxikebarriko agertokira igoko dira ostiralean, martxoak 14, 20:00etan, *Arizona* ikuskizuna antzetzeko. Euskarazko ikuskizun horretarako sarrerak agortu dira.



Bertan, mugei, migrazioari, giza ergelkeriari eta haien manipulazioaren mugei buruzko hausnarketa egiten dute, baita pertsonaiak

ikuspegi tragikomiko batetik aztertutako ere.

Juan Carlos Rubioren jatorrizko testu batekin, *Arizona*-k umorea eta hausnarketa politikoa uztartzen ditu. AEBk Mexikorekin duen mugan kokatzen gaitu. George eta Margaret, gringoak, beren mugak defendatu behar dituzte. Bizilagunak hor daude, zelatan, deskuidurik txikienean gurutzatzeko zain.



## Musika barrokoaren kontzertua

Areetako Andrés Isasi Musika Eskolak Bilbao Barrok ahots eta instrumentu laukotearen kontzertua hartuko du larunbat honetan, hilak 15. *Cantatas* izenburuarekin, alemaniar eta ingeles barroko osoko musika proposamen bat eskainiko dute, iraganaren eta orainaren arteko topaketa bat bilatuz. G.P. Telemann, G.F. Händel eta J. S. Bachen obrak tartekatuko dituzte, eta, horien bidez, publikoak haien estiloak alderatu ahal izango ditu, berezitasunetan eta antzekotasunetan. Napoliko eskolako kantata tipikoak eta eliz obrak interpretatuko dituzte.

Bilbao Barrok honako hauek osatzen dute: Laiene Alcalá (sopranoa), David Sáez (moko-txirulak), Nora López (cello barrokoa) eta Marta Díaz (organoa eta klabea). Kontzertua 19:30ean hasiko da eta sarrerak 5 euro balio du.



## Pedro de Andresek bere azken bi lanak aurkeztuko ditu

Pedro de Andrés idazle getxotarrak bere azken bi liburuak aurkeztu ditu Romo Kultur Etxean: *Otra como yo* eta *La tinta de mis venas y otros relatos*. Lehenengoa eleberririk erotiko errromantiko bat da, non protagonistak, Marc-ek, literatur tailer batean neska bat ezagutzen duen. Hasieratik argi uzten dio, erakargarri badirudi ere, bakarrik geratu nahi duela sexua izateko (asko) eta bere istorioari buruzko eleberririk bat idazteko (amaitzen badute). Hala ere, Marc kezkatzen duen gauza bakarra bere ondoan mantentzea da, badakielako ez duela bera bezalako beste bat aurkituko. Bigarren liburua egileak azken hamar urteetan imajinatu dituen zientzia fikziozko ipuinen bilduma da. “Zientzia-fikzioa da posible denaren barruan sartuko litzatekeen premisa batetik abiatuta irudikatzea”, dio Andresek.



## “Pinotxo”, antzerkia, txotxongiloak eta musika publiko guztientzat

Martxoaren 16an, igandean, Mar Rojo Teatro konpainiak, El Arca de Mozart taldearekin batera, Collodiren *Pinotxo*-ren bertsio berri bat taularatuko du Muxikebarrin, publiko guztientzat pentsatua. Gaztelaniaz antzetzeko den muntaia honetan, instrumentuak egiten dituzten aroztegi zahar bateko sei langile tailerrean dauden objektuekin eta materialekin jolasten hasiko dira, pixkanaka istorio honi forma emanez. Eguneroko objektuen eta irudimen handiaren bidez, musikaz eta abenturaz betetako mundu magikoa sortuko dute. Publikoak txotxongilo, aktore eta zuzeneko musikaz gozatu ahal izango du, gaur egungo umore zertzelada ugarirekin. Ikuskizuna 18:00etan hasiko da eta sarrerak 6 euro balio du.



# Laguntzen deialdi berria enpresetan berrikuntza sustatzeko eta jarduera turistiko bermatuen eskaintza indartzeko

Apirilaren 10era arte aurkeztu ahal izango dira 2025eko enpresentzako laguntzak jasotzeko eskaerak; Udalak, Sustapen Ekonomikoa Arloaren bidez, aurtun 95.550 euro bideratu ditu horietara.

**1 ildo: laguntzak profesionalen eta enpresen berrikuntza bultzatzeko (37.800 euro).** Negozio-lerro berriak, produktu edo zerbitzu berriak, merkaturatzeko eta eraldaketa digitalerako modu berriak bultzatzera bideratuak.

**2 ildo: laguntzak turismo arloko profesionali eta enpresei zuzendutako jarduera turistiko bermatuak abian jartzeko (57.750 euro).** Helburua da enpresen zerbitzu, jarduera eta/edo produktu berriak, erregularrak eta kalitatekoak sortzea eta abian jartzea,



baldin eta merkaturatzeak (zuzeneko eta zeharkakoa) Getxoko turismo-enpresa guztiei mesede egiten badie.

Irantzu Uriarte eta Juanma González zinegotziek adierazi dutenez, "laguntza hauek Getxoko

Udalaren bultzada gehigarria dira, Getxoko enpresen berrikuntza eta udalerriko turismo-eskaintza indartzeko".

2025. urterako, gainera, udalerriko enpresek zerbitzu eskaintza handia dute profesionalizatzeko, baita proiektu eta programa espezifiko berriak, udal enpresa-sarea bultzatzeko.

## Informazio saioa

Martxoaren 18an, asteartean, informazio-saioa egingo da 1 ildoaren inguruko zalantzak argitzeko Ekonomia Sustapena Arloaren egoitzan, Getxo Elkarte-gian (Ogoño 1, Areta), 14:00etan. Ez da beharrezkoa izena ematea. Deialdiari eta eskaera ereduak buruzko informazio gehiago: <https://labur.eus/4ykonxbj>

Aste honetan estreinatu da udalerrian "Esto no es Hollywood"

## Getxo, hiru filmaketa zinematografiko berriren agertokia

Martxoaren 20ra arte, Portu Zaharreko hainbat tokitan eta Ereaga inguruan filmaketa zinematografiko berri bat egingo da. Hori dela eta, aparkatzeko erreserbak eta ibilgailuen eta oinezkoen trafikoa noizbehinka mozteko erreserbak egiten ari dira, Udaltzaingoak araututa. Herritarrek inguruko aparkaleku libre eta kontrolatuak erabiltzen jarraitu ahal izango dute.

### "Barcelona my love"

Portu Zaharrean filmatuko diren eszenak *Barcelona my love* minisailerako dira. Ron Oliverrek zuzendutako komedia erromantiko horrek bi kapitulu ditu eta Ashley Williams, Alison Sweeney eta Alejandro Tous ditu protagonista. Hallmark Estatu Batuetako kable bidezko telebista-kate nagusiaren ekoizpena da. 2025aren erdialdean emitituko da Hallmark Channel telebista katean (AEB eta Kanada), eta mundu osoan streaming plataformek banatuko dute (Netflix, Prime Video...).

### "Los domingos" eta "Inurri itsuak"

Gainera, egunotan, Getxon, beste bi filmaketa egiten ari dira:

- *Los domingos*, Alauda Ruiz de Azuaren hirugarren film luzea, Blanca Soroa eta Patricia López Arnaiz protagonista dituen. Hori dela eta, aparkalekuak erreserbatu dira Aiboa, Ormetxe eta Miramar kaleetan, bai eta ibilgailuen zirkulaziorako noizbehinkako mozketak ere.

- *Inurri itsuak*, Ramiro Pinillaren eleberrian oinarritua, Igor Legarretak zuzendua eta Itziar Ituño eta Urko Olazabal protagonista dituen. Irudi batzuk martxoaren 18tik aurrera filmatuko dira Azkorri inguruan.

### "Esto no es Hollywood" filmaren estreinaldia

Gainera, aste honetan estreinatu da Getxon *Esto no es Hollywood* filma, Ibarretxe anaien istorio bukatugabea. Jone Ibarretxek eta Nere Falaganek zuzenduta, haien bazkide izandako Eduardo Carnerosen (*Los cronocrímenes*) ekoizpena da.

Ibarretxe anaien (Javi, Josemi eta Esteban) heriotza goiztiarraren ondoren, Jone Ibarretxek, Josemiren



alabak, Ibarretxe & Co ekoiztetxearen unibertso ibarretxiarra eta ondarea berriz aurkitu nahi ditu. 90eko hamarkadan eta 2000koaren hasieran euskal zinemak latitude hobeagoetara emigratzen zuenean, Bilbollywood propioa sortzearen aldeko apustua egin zuten. Dokumental honetan, ezagutu zizutenen eskutik, Jone Ibarretxe misterioa azaltzen saiatuko da, eta unibertso hori bere heriotzarekin amaitzen ez ote den jakiten.

Hiru egunez proiektatuko den eta ostegun hau, hilaren 13a azken eguna izango den filma, 64 Zinemaldiko Zinemira Sailean, ZINEBIko Bertoko Begiradak Sailean eta Gasteizko Euskal Zinema Dokumentalaren 10. Astean lehiatu da. EITBk parte hartzen du, eta Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa du.

## Getxo Bizitza, Getxo Enpresaren kanpaina digitala

Getxo Enpresak Getxo Bizitza kanpaina jarri du martxan, ikusgarritasun digitala emateko eta tokiko negozioetan kontsumoa sustatzeko. GERTUapp aplikazioa mugikorren duten bezeroek oparien zozketan parte hartu ahal izango dute, eta 100 euroko bale bat ere bai, dagoeneko erregistratuta dauden 250 negozio baino gehiagotan kontsumitzeko.

Kontsumitzaileen %70ek baino gehiagok Interneten nabigatzen du erosketak egin aurretik, eta, horregatik, ezinbestekoa da denda eta negozio txikiak digitalizatu izatea. Ikusgarritasun digital hori errazteko, telefono mugikorretik sar daiteke, GERTUapp aplikazioaren bidez, Getxo Enpresarekin lotutako 250 saltoki eta negozio baino gehiagotara. Edonork aurki ditzake establezimendu guztiak, haien eskaintza komertziala ezagutu, kontsultak egin, erreserbak egin, aldizkako zozketetan parte hartu...

2025eko kanpainak, urte amaierara arte garatuko denak, hiru kontsulta ezberdin proposatzen ditu. Lehenengo apirilaren 30era arte dago eskuragarri, eta eskura dagoen merkataritza-eskaintzarekiko gogobetze-elementu orokorrak jorratzen ditu. Kontsulta bakoitzean sariak zozketatuko dira: lehenengoan, 100 euroko opari-txartel bat elkartutako negozioetan trukatzeko, kontserbaloite bat eta kafe-sorta bat.

### Valentziako merkataritzarekiko sare solidarioa

Bestalde, Getxo Enpresak ekimen solidario bat jarri du abian, Dana delakoaren eraginpean dauden Valentziako saltokiei laguntzeko, Valentziako Erkidegoko Merkataritza, Zerbitzu eta Autonomoetako Enpresarien Konfederazioarekin (Confercomerc) lortutako akordio baten bidez, gure saltokiek eta haien bezeroek *Merkataritzak merkataritza salbatzen du* kanpainarekin bat egin dezaten.

Getxoko negozioak ukitutako udalerrietako establezimenduen beharren informazio-gune izan daitezke, eta dohaintzak bideratu. Parte hartzen duen negozio bakoitzari emango zaio ekimena gauzatzeko behar den informazioa, kontu-zenbakia edo zerga-salbuespenerako dohaintza-ziurtagiriak nondik jasoko dituzten.

Kanpaina: [www.elcomerciosalvaalcomercio.com](http://www.elcomerciosalvaalcomercio.com) eta [www.getxoenpresa.com](http://www.getxoenpresa.com)